

Italian, italiarrak

GIROAREN BEZPERAN. Etzi hasiko da 85. Giroa; Groningan abiatuko da, Holandan, eta Milanen bukatuko. Hautagai asko eta ia denak italiarrak izatea, eta ibilbide bihurria dira aurtengoaren ezaugarriak

Andoni Urbistondo | **DONOSTIA**

Larunbatean hasiko da 85. Giroa. Guztietan europarrena. Europarrena, Groningan hasiko delako (Holanda), 6,5 kilometroko aitzin-etaparekin, eta bost saio Italiako mugetatik kanpo korritu eta bukatuko direlako: Munsterren lehena (Alemania), Liejan bigarrena (Belgika), Alzetten hirugarrena (Luxenburgo) eta Estrasburgon laugarrena.

Europarra hasiera bitxia aintzat hartuta, baina italiarra bakarrik, Giroa irabazteko hautagai gehientsuenak herri horretan jaiotako karreristak izango direlako. Ustekabe handia litza-teke italiarra ez den txirrindulari bat Milango podiumeko eskailera gorenera igotzea.

3.334 kilometro izango ditu aurtengo Giroak eta, behin Italian sartuta, ohiko bidea egingo du azken bi asteetan. Hegoalde-rantz aurrena, eta iparralde-rantz bigarren erdian, Milanera iritsi arte. Ibilbidearen gaineko azterketa eginda, mendiko eta-

IBILBIDEA

Gainetan bukatuko diren lau etapa, erlojupeko 80 kilometro eta etapa bihurri asko 85. Giroko ezaugarriak

pak erlojupekoak baino erabakigarriagoak izango dira. Lau etapek izango dute akabera gainetan. Trukean, 80 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek bakarkako diziplinan, erlojupekoan.

Lau etapa bukaera gainetan, azken biak azken astean

11. etapa Campitello Matesse mendatean bukatuko da, Apeninoetan. Hori da eguneko pendiza serio bakarra, eta luzea bada ere (17 kilometro), ez du aldats gogorregirik. 13. etapan San Giacomo gainean amaituko da etapa. Lehen aldiz igoko da mendate hori (11 kilometro eta %6ko batez besteko pendiza).

Azken aldats horrek baino, Italia erdiko ibilbide gorabeheratsuak gehiago zigortuko ditu agian txirrindularien giharrek.

Giroko bigarren erdian jokatuko dira saio gogorrenak, Dolomitako paisaia ikusgarrietan, ohi den moduan. Nabarmentzekoa da, hala ere, 16. eta 17. etapak, aurreko urteetako etapa gogorrenak baino etzana-goak direla. Lasterketan, ordea, karreristen esku dago gogortasuna handiagoa edo txikiagoa izatea.

16. saioa Corvara Alta Badian bukatuko da. Etapako azken 90 kilometroetan (168 orotara) Forcella Staulanza (12 km eta %6,6), Marmolada horma pikoa (14 km eta %8ko pendiza), Passo Pordoi (Coppi gaina) eta Campolongo txikia Corvarara jaitsi aurretik. Marmolada eta Pordoi Giroko mendate mitikoak dira, eta hautagairen batek lasterketa Marmoladan hausteko ausardia badu, txikizio handia izan daiteke. Litekeena da indartsuenek 17. etapa ere buruan izatea eta tentuz jokatzea.



PATRICK KOVARIK / EPA

IAZKO BIKOTEA, AURTEN ERE HAUTAGAI. Gilberto Simoni eta Dario Frigo izango dira

222 kilometro daude Corvara eta Folgaria mendatearen artean. Passo Gardena eta Passo Sella ezagunak alde samurrenetik igo ostean, Monte Bondone eta Santa Barbara Giroko epaileak

izan daitezke. Pendiza serioa da Bondone, luzea (21,5 kilometro) eta pikoa (%6,8ko batez bestekoa). Gogorra da Santa Barbara ere (15 km eta %7,26). Mendatea jaitsita maglia arro-

JUANMA GARATE **LAMPRE TALDEKO TXIRRINDULARIA**

«Tonkovi lagundu behar diot; kale egiten badu, libreago ibiliko naiz»

A.U. | **DONOSTIA**

Euskal Herriko bi txirrindulari abiatuko dira etzi Groningatik. Juanma Garate irundarra da horietako bat. Aurtun ere taldeburuarentzat lan egiteko asmoarekin doa. Ez Gilberto Simonirentzat, Pavel Tonkoventzat baizik. Errusiarrak huts eginez gero, ordea, etapa bat irabazten eta sailkapen ona lortzen saiatu nahi luke.

■ Giroari ekiteko prest?

Iaz bezala prestatu dut Giroa aurtun ere. Iaz Simoniren alboan egotea zen nire lana, aurtun Pavel Tonkovi lagundu beharko diot.

■ Baina Tonkov ez da Simon bezain hautagai sendoa.

Ez dakigu Tonkov sasotsu dagoen ala ez. Romandiako Tourra zen azken probalekua hori

jakiteko, baina eguraldi ezin okerragoa egin zuen (euria, elurra, hotza...) eta inork ez zuen arriskatu. Tonkovek berak ere ez daki bete-betean dagoen ala ez.

■ Iazko lan ona buruan, gogotsu ariko zara, ezta?

Gogo handiarekin korritu nuen Giroa. Simoni txirrindulari ona da, konfiantza ematen duena. Lider sendo batek motibazioa handitzen du, erantzukizuna onartzea errazten du, eta nik uste dut horri esker egin nuela Giro ona, hein handi batean behintzat. Iaz 20. sailkatu nintzen, Simonirentzat lan egin nuelako. Errazago, azkarrago, geratzen zara atzean besteen gurpilera joanda, onenen tropeletik tiratzen baduzu baino. Hanketako mina hobeto jasaten duzu. Tonkov da nire lide-



EGUNKARIA

SAILKAPEN NAGUSIA

«Lehen hamarren artean sailkatzea oso zaila da, eta lehen hamabosten artean, zaila»

rra orain, eta Simoni eta Casagrande bezain faborito ez bada ere, mendiko lehen ailegatera jokatu arte berarentzat egin beharko dugu lana.

■ Zer lortuta konformatuko litzateke Juanma Garate?

Tonkoven jardunera mugatuta, ez nuke helburu jakinik finkatu nahi, badaezpada. Lehen hamarren artean sailkatzea oso zaila da, lehen hamabosten artean zaila. Sasoi hasieran Pietro Algeri zuzendariari Giroa hasi aurretik probaren bat irabaziko nuela agindu nion, eta Trentinoko Giroan lortu nuen. Orain, familiari Giroan etapa bat irabaziko dudala agindu diet eta ea hala den. Horretaz gain lehen hamabosten artean sailkatzen banaiz, bikain. Tonkovek Giroa irabaztea da taldeko erronka.